Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua
Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias

**IAE/AIO** **O.F 197–T/2015**

**FORU AGINDUA / ORDEN FORAL**

Donostia, 2015eko otsailaren 27a.

San Sebastián, 27 de febrero de 2015.

Diputatuen Kontseiluaren 2014ko uztailaren 29ko 23-T/2014 Erabakiaren bidez onartu ziren **Debagoieneko eskualdea eta eskualde horren eta Debabarrena, Gasteiz, Bilbo eta Donostiaren arteko loturak, eta Euskadiko autonomia erkidegoko hiriburuen arteko loturak (LUR-DG-07) (6-MO-52/2014)** izeneko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak eskaintzeko emakida esleitzeko ezaugarri teknikoen agiria, baldintza administratibo bereziena eta kontratazio espedientea.

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral AD.23-T/2014, de 29 de julio de 2014, se aprobó el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el expediente de contratación para la adjudicación de la concesión para la prestación del "SERVICIO DE TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR DE VIAJEROS DE LA COMARCA DE DEBAGOIENA Y SUS CONEXIONES CON DEBABARRENA, VITORIA-GASTEIZ, BILBAO Y DONOSTIA Y LAS CONEXIOES ENTRE LAS CAPITALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAIS VASCO (LUR-DG-07) (Clave: 6-MO-52/2014)".

Erabaki berean, ebatzi zen emakida prozedura irekiaz eta hainbat irizpideren arabera esleitzeko prozedura irekitzea. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 240.153.794,20 euro zen, eta emakidaren epea 10 urte, baldintza administratibo berezien agiriko 6. klausulan adierazten den moduan luza daitekeena.

Asimismo, en virtud del mismo Acuerdo se dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto y varios criterios de adjudicación, con un presupuesto base de licitación de 240.153.794,20 euros, con un plazo de ejecución de la concesión de 10 años, que podrá prolongarse conforme a lo establecido en la cláusula nº 6 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Lizitazioko tramiteak egin ondoren 4 proposamen jaso eta guztiak onartu ziren.

Realizados los trámites licitatorios correspondientes se recibieron 4 proposiciones, resultando todas ellas admitidas a licitación.

Kontratazio mahaiak, eskaintzak aztertu eta baldintza administratibo berezien agirian ezarritako irizpide objektiboak eta subjektiboak eta eskaintzen balorazioen txosten teknikoak kontuan hartu ondoren, eskaintzak puntuazioaren arabera sailkatu ditu, hurrenkera honen arabera:

La Mesa de Contratación, tras el estudio de las ofertas y una vez valorados los criterios objetivos y subjetivos establecidos en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y los informes técnicos de valoración de las ofertas, ha clasificado las mismas en función de la puntuación obtenida de la siguiente forma:

| HURRENKERA/ ORDEN | ONARTUTAKO ENPRESAK/ EMPRESAS ADMITIDAS | PUNTAZIOA PUNTUACIÓN |
|---|---|---|
| 1. | TRANSPORTES PESA SA | 82,08 |
| 2. | | 77,39 |
| 3. | | 74,06 |

4. ...............64,54

Ondorioz, kontratazio mahaiaren iritziz, emakida bidezko zerbitzu publikoa ondoen egingo dela bermatzen duen eskaintza Transportes Pesa SA enpresarena da. Eskaintza ekonomikoa 224.049.384,80 eurokoa da emakidaren 10 urteko aldirako. Zerbitzu bereziei dagokienez (gehienez 80.000 km), kilometroko 1,48 euroko eskaintza egin du, hau da, emakidaren 10 urteetarako 1.184.000 euro. Horregatik, eskaintza guztira 225.233.384,80 eurokoa da gehienez.

En consecuencia, la Mesa de Contratación ha considerado que la oferta que mejor asegura la ejecución del Servicio Público a realizar mediante la concesión, es la realizada por la empresa TRANSPORTES PESA SA. La oferta económica es por un importe de 224.049.384,80 euros para el periodo de 10 años de la concesión. En relación con los servicios especiales (hasta un máximo de 80.000 Km.) el precio por kilómetro que ha ofertado es de 1,48 euros por kilómetro, lo que supondría un importe de 1.184.000 euros para el periodo de 10 años de la concesión. Por ello, el importe total asciende a un máximo de 225.233.384,80 euros.

Transportes Pesa SA enpresaren aldekoa izatea eragin duten proposamenaren ezaugarri eta abantailei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

Con respecto a las características y ventajas de la proposición de TRANSPORTES PESA SA determinantes de la adjudicación a su favor, debe indicarse lo siguiente:

Zerbitzuei dagokienez, proiektuan aurreikusitakoa hobetzen duten proposamen hauek egiten dira:

En lo relativo a la operativa de servicios se realizan las siguientes propuestas que mejoran lo previsto en el Proyecto de servicio:

DG01 Arrasate/Oñati-Bilbo linea: igande eta jaiegunetan zerbitzu bat gehiago proposatzen da, Bilbotik 21:30ean irten eta Oñatiraino iristen dena.

En la línea DG01 Arrasate/Oñati-Bilbao los domingos y festivos se propone una expedición más con salida en Bilbao a las 21:30h y llegada a Oñati.

DG03 linea zirkularra, Oñatiko noranzkoan: neguan proposatzen da zerbitzua Legazpiko Urtatza auzoraino luzatzea bi zerbitzutan, Gureak lantegi babestuan lan egiten duten pertsona desgaituei zerbitzu emateko, Zumarraga eta Urretxuko bizilekuetara itzultzerakoan.

En la línea circular DG03 sentido Oñati propone los días de invierno que el servicio se prolongue hasta el barrio Urtatza de Legazpi en dos expediciones para dar servicio a las personas discapacitadas que trabajan en el centro de talleres protegidos Gureak en la vuelta a sus domicilios en Zumarraga y Urretxu.

DG04 linea zirkularra, Bergarako noranzkoan: proposatzen da Urtatzaraino luzatzea, Gureako langile desgaituei zerbitzu emateko lanera doazenean; horrek eragina izango du Eskoriatzatik 06:45ean eta Legazpitik 08:00etan irteten diren zerbitzuetan.

En la línea circular DG04 sentido Bergara propone la prolongación a Urtatza para dar servicio a las personas discapacitadas empleadas en Gureak cuando se dirigen a su trabajo y que afecta a la expedición con salida en Eskoriatza a las 6:45h con paso por Legazpi hacia las 8.00h.

DG05 Eibar-Arrasate-Gasteiz linea: proposatzen da neguko lanegunetan bi zerbitzu partzial gehiago egitea: lehena, 06:05ean, Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Gasteiz artean, eta, bigarrena, 06:55ean, Gasteiz-Eskoriatza-Arrasate artean. Gainera, ordutegi aldaketa bat proposatzen da, Gasteizko irteera 5 minutu aurreratuz Gasteiz – Arrasate – Elorregi – Bergara –Soraluze – Eibar linean, Elorregin bermatzeko DG08 Eibar-Oñati lineako zerbitzuak hartu ahal izatea, eta Oñatirako loturak errazteko; gainera, ibilbidea aldatzea proposatzen da Gasteiz-Eibar eta Eibar-Gasteiz ibilbideetan, AP-1 autobidetik doazen zerbitzuetan, sarrera eta irteera Eskoriatzan eginez, Arrasaten egin beharrean (08:15eko Eibarko zerbitzuan izan ezik), horrela zerbitzu ematen zaiolako Eskoriatzari eta Aretxabaletari, eta Leintz Gatzagako lotura ahalbidetzen delako DG21E linearen bidez.

En la línea DG05 Eibar- Arrasate-Vitoria propone los días laborables de invierno dos expediciones parciales adicionales: la primera, a las 6:05h Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza-Vitoria y, la segunda, a las 6:55h Vitoria-Eskoriatza-Arrasate. Además, propone una modificación de horarios consistente en adelantar 5 minutos las salidas en Vitoria de los itinerarios Vitoria-Arrasate-Elorregi-Bergara-Soraluze-Eibar para asegurar la combinación en Elorregi con los servicios de la línea DG08 Eibar-Oñati, y facilitar la conexión hacia Oñati, y, una modificación del recorrido de los itinerarios Vitoria-Eibar y Eibar-Vitoria, en las expediciones por la AP1, realizando la entrada y la salida en Eskoriatza, y no en Arrasate (salvo en la expedición de las 8:15h de Eibar), con lo que da servicio a Eskoriatza y Aretxabaleta y permite la conexión con Leintz Gatzaga a través de la línea DG21E.

DG07 Eskoriatza-Donostia linean, neguko lanegunetan, hobekuntza hauek proposatzen dira: Donostia-Eskoriatza zerbitzua, ostiraletan 22:00etan aurreikusten dena, astelehenetik ostegunera ere egingo da; bestalde, 5 minutu aurreratzen da, 05:55era, Eskoriatzatik Donostiara doan lehen zerbitzua, Donostiara iristen den ordua aurreratu eta hiri barruko mugimenduak errazteko. Gainera, uztailean, ostiraletako Arrasate-Donostia arteko 22:30eko zerbitzua astelehenetik ostegunera ere eskainiko da.

En la línea DG07 Eskoriatza-Donostia los laborables de invierno se proponen las siguientes mejoras: la expedición Donostia-Eskoriatza prevista a las 22:00h de los viernes se realizará también de lunes a jueves; por su parte, adelanta 5 minutos, a las 5:55h, el horario de la primera salida desde Eskoriatza hasta Donostia para adelantar asimismo la llegada a Donostia y facilitar los movimientos internos. Además, durante el mes de julio la expedición de las 22:30h Arrasate-Donostia de los viernes también se ofertará de lunes a jueves.

DG20E Bergara-Elgeta linea: 21:35eko zerbitzua 5 minutu atzeratzea proposatzen da, DG05 Eibar-Gasteiz linearekin lotura egin ahal izateko. Aldaketa horren eraginez, Elgetatik Bergararako 21:50eko irteera 5 minutu atzeratzen da.

En la línea DG20E Bergara-Elgeta propone retrasar 5 minutos la expedición de las 21:35h para que sea posible la combinación con la línea DG05 Eibar-Vitoria. Esta modificación supone que la salida de Elgeta a Bergara de las 21:50h, se retrase 5 minutos.

DO02 Donostia-Gasteiz linea: urte guztiko igande eta jaiegunetan beste zerbitzu bat proposatzen da 21:45ean Gasteiz eta Donostia artean.

En la línea DO02 Donostia-Vitoria se propone una expedición más los domingos y festivos de todo el año a las 21:45h entre Vitoria y Donostia.

DO50B Donostia-Loiu linea: eguneko 18 zerbitzu

En la línea DO50B Donostia-Loiu propone un

gehiago proposatzen dira bi noranzkoetan abuztuan eta uztaileko azken hiru egunetan.

incremento de 18 expediciones diarias en ambos sentidos en agosto y en los tres últimos días de julio.

Ibilgailuei dagokienez, proposatzen du emakidari 23 ibilgailu eta 3 mikrobus berri atxikitzea, guztira 67 autobus eta 3 mikrobus izateko. Ibilgailuak berritzeko proposamena, berriz, zerbitzu proiektuan aurreikusitakoa da, hau da, ibilgailuak 12 urteren buruan berritzea proposatzen da.

Con respecto a los vehículos, propone adscribir al servicio 23 nuevos autobuses y 3 microbuses, para un total de 67 autobuses y 3 microbuses. En cuanto al cuadro de renovación de flota la propuesta se remite a lo previsto en el proyecto de servicio, en concreto, se propone la renovación de flota a los 12 años.

Erabiltzaileen informazio eta bezeroen arreta plana aurkeztu du, eta bertan, eskaeraren araberako zerbitzuei dagokienez, proposatzen da eskaria doako telefono deiaren bidez egitea asteko egun guztietan, 07:00etatik 21:30etara. Gainera, eskaria egin ahal izango da SMS, WhatsApp eta horretarako sortutako web orriaren bidez. Geltokietako informazio eta eguneratze planerako, enpresaren proposamena “eduki anitzeko geltoki informatiboa” izenekoan oinarritzen da. Horrek osagai hauek ditu: TFT pantaila (32”), CPU eta edukiak deskargatzeko eta mantentzeko beharrezko osagarriak. Gainera, aukera ematen du txartelak internet eta salmenta makinen bidez erosteko, eta Mugi txartelak bere txarteldegietan kargatzeko.

Presenta un plan de información a usuarios/as y atención al cliente, en el que en referencia a los servicios a la demanda se propone que la solicitud se realice por teléfono con llamada gratuita todos los días de la semana, entre las 7.00h de mañana y las 21:30 de la noche. También se podrá realizar la solicitud del servicio por SMS, WhatsApp, así como Web de la plataforma creada al efecto. El plan de información y actualización en paradas que propone la empresa se basa en la denominada “Parada Informativa Multicontenido” compuesta por una pantalla TFT de 32”, CPU y los accesorios necesarios para permitir la descarga de contenidos y el mantenimiento de los mismos. Además, se propone la posibilidad de adquirir billetes por Internet, terminales de venta desasistida así como la posibilidad de recargar las tarjetas del sistema Mugi en sus taquillas.

Azkenik, zerbitzu gehigarriak egiteko, erreserbako ibilgailuak izango ditu, eta Autobuses Aizpurua eta Leintz Garraioak enpresekin sinatutako lankidetza hitzarmenak aurkeztu ditu, emakidari atxikitako ibilgailuak (70) nahikoak ez badira laguntza behar denerako.

Por último para la realización de refuerzos dispondrá de los vehículos de reserva y aporta acuerdos de colaboración con Autobuses Aizpurua y Leintz Garraioak para situaciones en las que la flota adscrita (70 vehículos) pueda requerir apoyos adicionales.

Puntuazioa esleitzeko prozeduraren azalpena, eta puntuazioa emateko arrazoibide zehaztua, esleipendunari eta gainerako enpresei emandakoena agertzen dira foru agindu honi eransten zaizkion esleipen irizpideen txosten teknikoetan; horrela, betetzen dira indarrean dagoen legediak eskatutako motibazio betebeharrak.

La descripción del proceso de asignación de la puntuación así como el razonamiento detallado que conduce a las puntuaciones asignadas tanto a la empresa adjudicataria como al resto de las empresas descartadas se expresa en los informes técnicos de valoración de los distintos criterios de adjudicación que se adjuntan a la presente Orden Foral, cumpliéndose así las

exigencias de motivación exigidas por la legislación vigente.

Dagokion errekerimendua egin ondoren, enpresak egiaztatu du 11.261.669,24 euroko behin betiko bermea jarri duela, eta aurkeztu du Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren 20. klausulan eskatutako dokumentazioa.

Realizado el oportuno requerimiento, la citada empresa ha acreditado la constitución de la garantía definitiva por importe de 11.261.669,24 euros y ha presentado toda la documentación exigida en la cláusula 20 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Ondorioz, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko diputatuak, erabaki horretan emandako ahalmena erabiliz, eta Kontratazio Mahaiak hala proposatuta,

En consecuencia, esta diputada del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, en uso de la facultad conferida en dicho Acuerdo y a propuesta de la Mesa de Contratación

**EBAZTEN DU**

**Lehenengo.- Transportes Pesa SA** enpresari esleitzea kontratu hau: **Debagoieneko eskualdea eta eskualde horren eta Debabarrena, Gasteiz, Bilbo eta Donostiaren arteko loturak, eta Euskadiko autonomia erkidegoko hiriburuen arteko loturak (LUR-DG-07) (6-MO-52/2014)** izeneko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak eskaintzeko emakida (LUR-Z-04) (13-MO-87/2014). Enpresaren 2014ko irailaren 10eko eskaintza ekonomikoaren arabera, 10 urteko emakidaren barruan, egingo dira zerbitzu erregularrak, gehienez **berrehun eta hogeita lau milioi berrogeita bederatzi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogei zentimoan** (224.049.384,80 €), eta kilometroa **euro bat eta berrogeita zortzi zentimoan** (1,48 €) zerbitzu berezietarako, gehienez 80.000 kilometro eginez, hau da, emakidaren 10 urterako 1.184.000 euro. Beraz, zenbatekoa da guztira **berrehun eta hogeita bost milioi berrehun eta hogeita hamahiru mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogei zentimo** (225.233.384,80 €).

**R E S U E L V E**

**Primero-** Adjudicar el contrato de Concesión del Servicio Público Regular de Transporte de Viajeros Interurbano por carretera de la comarca de DEBAGOIENA Y SUS CONEXIONES CON DEBABARRENA, VITORIA-GASTEIZ, BILBAO Y DONOSTIA Y LAS CONEXIONES ENTRE LAS CAPITALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA (LUR-DG-07) (Clave: 6-MO-52/2014), a la empresa TRANSPORTES PESA SA conforme a su oferta económica de 10 de septiembre de 2014, por un importe máximo de DOSCIENTOS VEINTICUATRO MILLONES CUARENTA Y NUEVE MIL TRESCIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUOS, CON OCHENTA CÉNTIMOS (224.049.384,80 €) para el servicio regular durante el periodo de 10 años de la concesión, y por el precio de UN EURO, CON CUARENTA Y OCHO CÉNTIMOS (1,48 €) por kilómetro para los servicios especiales, con un máximo de 80.000 kilómetros, lo que supondría un importe de 1.184.000 euros para el periodo de 10 años de la concesión. Por ello, el importe total asciende a DOSCIENTOS VEINTICINCO MILLONES DOSCIENTOS TREINTA Y TRES MIL TRESCIENTOS OCHENTA Y CUATRO EUROS, CON OCHENTA CÉNTIMOS (225.233.384,80 €).

Kontratuaren urteko zenbatekoak honela

Las anualidades del contrato quedan

banatuko dira:

establecidas de la siguiente forma:

| Ekitaldia/ Ejercicio | Zenbatekoa/ Importe |
|---|---|
| 2015 (martxoa-abendua/marzo-diciembre) | 16.892.503,86 € |
| 2016 | 22.523.338,48 € |
| 2017 | 22.523.338,48 € |
| 2018 | 22.523.338,48 € |
| 2019 | 22.523.338,48 € |
| 2020 | 22.523.338,48 € |
| 2021 | 22.523.338,48 € |
| 2022 | 22.523.338,48 € |
| 2023 | 22.523.338,48 € |
| 2024 | 22.523.338,48 € |
| 2025 (urtarrila-otsaila/enero-febrero) | 5.630.834,62 € |

**Bigarren.-** Lehiaketara aurkeztutako lizitatzaile guztiei behin-behineko bermeak itzultzeko agintzea, foru agindu honen eranskinean adierazten denaren arabera.

**Segundo**.- Ordenar la devolución de las garantías provisionales a todos los licitadores presentados al procedimiento de acuerdo con lo señalado en el anexo de esta Orden Foral

**Hirugarren.-** Aipatutako enpresaren alde xedatzea 8.108.401,85 euro, 2015eko urteko ordainketari aurre egiteko, aurrekontuko 1.0810.100.492.00.01 sailaren kontura, traktu jarraituko eta etengabeko izaerako gastua baita.

**Tercero.-** Disponer un gasto de 8.108.401,85 euros a favor de la citada empresa, para hacer frente al gasto de la anualidad 2015, con cargo a la partida del presupuesto vigente 1.0810.100.492.00.01, en atención a su consideración como gasto de tracto sucesivo de carácter permanente.

**Laugarren.-** Kontratuaren zuzendari izendatzea Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko burua.

**Cuarto**.- Designar para la dirección del contrato a , jefe del Servicio de Movilidad y Transportes.

**Bosgarren**.- Esleipen hartzaileak BOST EGUN NATURALEKO EPEAN formalizatu behar du kontratua, horretarako bidaliko zaion agiria jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, betiere esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei bidali ondorengo 15 egun baliodun igaro ondoren. Kontratua Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan sinatuko da.

**Quinto.-** La adjudicataria deberá formalizar el contrato, dentro del plazo de CINCO DÍAS NATURALES a contar desde el día siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento para ello, en las Oficinas del Servicio de Contratación del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, una vez haya transcurrido el plazo de 15 días hábiles siguientes desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek horren aurka zuzenean

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra ella

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO EPEA DUTE, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, partikularrek aukera dute horren aurretik kontratazioko errekurtso berezia aurkezteko Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuak 40. artikuluan aurreikusten duenaren arabera. Horretarako, 15 egun balioduneko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, eta aldez aurretik kontratazio organoari iragarri beharko diote, aipatutako legeak 44. artikuluan xedatzen duen moduan."

RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer el recurso especial en materia de contratación, previsto en el artículo 40 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, ante el Consejo de Gobierno Foral o ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Constractuales, en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente a aquel en que se remita la notificación del acto impugnado, debiendo anunciarlo previamente conforme a lo establecido en el artículo 44 del mencionado texto legal."